

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Hasierako onespina ematea indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera pisuaren zerbitzuaren araudiari

Udalbatzak, 2025eko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, hasierako onespina eman zion indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera pisuaren zerbitzuaren araudiari.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek egoki deritzeten erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabakia behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada aipatutako epean. Erreklamazioen bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan xedatutakoa betez.

Peñacerrada-Urizaharra, 2025eko irailaren 8a

Alkatea

ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ